

Teoria Kritikoa

8.1. Sarrera

Teoria kritikoa gizarte-zientzia guztietan agertzen den korrante bat da, hala nola, soziologian eta zientzia politikoan. Frankfurteko Eskolako¹⁷⁵ ekarpenetan oinarrituta dago batik bat, eta, haren barruan, gaur egungo ordezkari nagusia den Jurgen Habermas filosofoaren ekarpenetan batez ere. NHetan, Teoria Kritikoa¹⁷⁶ 80ko hamarkadaren hasierarako agertua zen (korrante postpositibista zaharrenetako bat da, beraz), ekarpen horiek gure diziplinara moldatzeko egokitzapen moduan¹⁷⁷.

Teoria Kritikoa pentsamendu kritikoko ildo luze baten oinordekoa da, gizakion artean justizia eta askatasuna lortzeko ekintza politikoekin konpromisoa hartu duen pentsamendu-ildoarena. Ildo hori Ilustrazioaren proiektu emantzipatzailearekin hasi zen, proiektu horrek arrazoia eta kritika gizakiaren askatasunarekin lotu baitzituen, eta gero jarraipena izan du Kant, Hegel edo Marx bezalako egileekin. Hain zuzen, korrante hori marxismoan sustraitua dago; zehatzago esanda, korrante horren espiritua

¹⁷⁵ Frankfurteko Eskola 1923an sortu zuten Max Horkheimerrek, Theodor Adornok, Marcusek eta Erich Frommek. Habermas eskolaren bigarren belaunaldikoa da.

Korrante berezi honen izena letra larriz idatzi ohi da, teoria kritikotik bereizteko, begi postpositibista batzuei ere ezarri ahal zaizen formulazio generikoa den aldetik.

Korrante hori NHetan sortu zen, egilerik nabarmenetako batek egindako artikulua COX, Robert (1981), «Social Forces, States and World Orders: beyond International Relations Theory», in *Millenium: Journal of International Studies*, 10. lib., 2. zk., 126.-

or.

eta ahalmen emantzipatzailea berreskuratzeko XX. mendean agertutako bi proiektu neomarxistetan. Marxismo klasikoaren muga teorikoez eta haren aplikazio politikoaren porrotaz jabetu ondoren agertu ziren horiek, erregimen komunistek urratu egiten baitzituzten eurek aldarrikatzen zituzten askatasuna eta justizia. Bi proiektuak dira Antonio Gramsci komunista italiarraren eta haren jarraitzaileen pentsamendua, eta lehen aipatutako Frankfurteko Eskola.

Azken eskola hori bereziki garrantzitsua izan da gizarte-zientzia guztietan (NH barne), Teoria Kritikoa osatzeko garaian: epistemologia kritikoa eta ikuspuntu normatibo eta eraldatzailea ditu ezaugarri. Hain zuzen, Frankfurteko Eskolaren sortzaileetako bat izan zen Max Horkheimer-ek, 1937ko *Teoria tradizionala eta teoria kritikoa* izenburuko lanean, teorizatzeke bi modu horien arteko bereizketa klasikoa proposatu zuen. Era horretan, teoria tradizionala positibista da; bereizketa zorrotza egiten du analizatzen duen subjektuaren eta analizatutako objektuaren artean, eta, horrenbestez, uste du jakintzak ez duela interesik; horregatik guztiagatik, ideia nagusiak aldaezintzat aurkezten ditu, eta haiek erreproduzitzen laguntzen du, gizarte bidegabeak betikotuz. Alderantziz, teoria kritikoren arabera, gizarte-zientzietan ez dago horrelako bereizketarik subjektu eta objektuen eta jakintza eta interesen artean. Izan ere, jakintzak izaera kontingentea du, hau da, testuinguru historikoak eta sozialak mugatutakoa da. Era horretan, teoriak berak laguntzen du prozesu sozialak mamitzen, eta horregatik defendatzen du horren helburua ez dela gizartea deskribatzea soilik, baizik eta eraldatzea ere bai¹⁷⁸. Azken batean, iruditzen zaio positibismoak ezin dituela Ilustrazioko idealak ase, jakintza erabiltzeko boterea dutenen eskuetan uzten baititu gizakiak, harreman sozialak kudea ditzaten eta onura ekonomikoa eskura dezaten¹⁷⁹.

Geroago, teoria kritikoa ernetzeko funtsezko ekarpena Habermasek egin zuen, jakintza hiru giza interes motatan oinarritzen dela formulatu zuenean: a) behar materialak asetzeko natura ulertu eta kontrolatzearekin lotutako interes zientifiko-teknikoak; b) gizarteko harremanak eta ordena mantentzeko arauak eraikitzeari lotutako interes praktikoak; eta c) gizakioi eragiten diguten muga sozialak identifikatu eta ezabatzea bideratutako interes emantzipatzaileak. Hala, bada, Habermasek proposatzen duenez, teoria kritikoa interes kognitibo emantzipatzaile horietatik abiatuta eraikitzen da; izan ere, aldakuntza soziala geldiarazten duen

¹⁷⁸ HORKHEIMER, Max (1972), «Traditional and Critical Theory», in *Critical Theory. Selected Essays*, Scabury Press, New York, 118.-244. or. (1. argit. alemanez, 1937).

¹⁷⁹ LINKLATER, Andrew (2007), «Critical Theory», in Martin GRIFFITHS (ed.), *International Relations Theory for the Twenty-First Century. An introduction*, Londres, 47.-59. or.

diskurtso politiko-sozialaren barruan dauden ideologiak agerraraztea du helburu¹⁸⁰.

Proposamen horiek Robert Coxek bereganatu zituen gero, NHen Teoria Kritikoaren sortzaileetako bat izan zenak. Haren ustez, teoria kontingentea da beti, eta garai historiko baten ezaugarriei lotuta dago; hala ere, bi forma har ditzake. Arazoak ebazteko teoria bat izan daiteke (*problem-solving theory*), nazioarteko sistemaren desorekak konpontzeko helburu soilarekin, funtzionamendua errazagoa izan dadin, baina azpian dauden menderatzeko interesak eta botere-harremanak auzitan jarri gabe. Beraz, lagundu egiten du horiek eta nazioarteko ordena zilegitzen eta iraunarazten. Neorrealismoaren eta neoliberalismoaren kasua da hori. Hala ere, teoria kritikoa ere izan daiteke (*critical theory*), munduko ordena eraldatzeko helburuarekin, azpiko interes eta botere-harreman horiek agerraziti nahi dituen, hain zuzen¹⁸¹.

Orotara, Teoria Kritikoak onartzen du jakintza ez dela neutrala, baizik eta giza interes jakin batzuetatik eratortzen dela. Horregatik, auzitan jartzten ditu diziplina horretan nagusi diren korrante positibistak, eta jakintza bat sortu nahi du, *statu quo* kritikatu ez ezik, gizakiak emantzipatzeko aldaketa politiko eta sozialak sustatzeko aukera emango duena.

NHen Teoria Kritikoak, funtsean, bi pentsamendu ildo hartzen ditu bere barruan, funtsezko elementuak partekatuta ere desberdinak direnak: neogramsciarra eta habermastarra.

8.2. Aldaera neogramsciarra

Lehenengo adarra Antonio Gramsci¹⁸² italiar pentsalari komunistari jarraitzen dioten egile neomarxistek osatzen dute; Gramsci marxista heterodoxoa izan zen, gure garaian eragin handia lortutakoa. Estatuari, botereari eta *hegemoniari* buruz landu zuen teoria da ekarpen nagusietako bat, materialismo historiko marxistaren analisirako angelua zabaldu baitzuen: marxismo klasikoan bezalako dimentsio ekonomikoak (materialak) sartzeaz gain, beste dimentsio ideologiko eta kultural batzuk ere txertatu zituen. Hain zuzen, haren ustez menderatze kapitalistaren ezaugarria da eliteek, ekonomia eta estatua kontrolatzeaz gain (haren behartzeko ahalmena

¹⁸⁰ HABERMAS, Jürgen (1995), *Conocimiento e interés*, Valentziako Unibertsitatea, Valentzia, 1995 (1. argit. alemanez, 1968).

¹⁸¹ COX, Robert (1981), «Social forces...» *op. cit.*

¹⁸² XX. mendearen 20ko hamarkadan espetxean idatzi zituen oharra nabarmentzen dira. Ikus: GRAMSCI, Antonio (2010), *Cartas desde la cárcel*, Ed. Veintisiete Letras, Madrid.

barne), kultura ere kontrolatzea: berak *hegemonia kultural* deitzen dio. Horri esker, klase menderatzaileak menderatuen onespena bereganatzen du, lidergo morala eta intelektuala finkatuz, eta haien interesak klase menderatzailearen interes berberak direla sinestaraziz. Hegemonia hori hainbat mailatan gauzatzen da (hezkuntzan, erlijioan, erakunde sozialetan, hedabideetan, kultura herrikoian...), eta, horien bidez, berezko eta zentzuzko bezala hedatzen dira gizartean balio eta interes nagusiak.

Era horretan, Gramscik alderdi ideazionalak gizartea osatzeko duten garrantzia azpimarratu zuen; horrekin, marxismo tradizionalaren determinismo ekonomikoa gainditu zen. Egitura ekonomikoaren, ideien eta ondorioz sortutako erakundearen arteko harreman konplexua dagoela proposatu zuen. Azken batean, hegemoniaren aurkako borroka soziala ideien esparruan ere gauzatu behar dela nabarmendu zuen, eta hori izan zen bere ekarpen nagusietako bat¹⁸³.

Ondare marxista horren arabera, aldaera honek egin dituen lanen ardatza da munduko ordenaren egituretan izandako aldaketen analisi historiko-soziologikoa egitea, jatorriak eta garapena barnean hartuta, bai eta aurkezten dituzten kontraesanak eta gatazkak, eta ordena horren egitura eraldatzeko aukerak eta prozesuak ere. Haren iritziz, munduko ordenaren egiturak sozialki eraikitako produktu historikoak dira, eta, Gramscik adierazi bezala, gaitasun materialen, ideien eta instituzioen arteko harreman dialektikoen bidez osatzen dira. Bestela adierazita, une historiko jakin batean mundu mailako indar sozial hegemonikoen egituraketa da, eta haren boterea sektore sozial garrantzitsuen maila ideologikoan intersubjektiboki legitimatutako adostasunean oinarritzen da. Egiturak, historikoki, izaera kontingentea dute, eta aldatu egin daitezke gizakiek ideia berriak eta instituzioak sortzen dituztenean beren arazo materialei aurre egiteko (egiturak nazioarteko sisteman aldaketa esanguratsuak egotea galarazten dutela dioen ideia errealistaren aurka doa hori). Hau da, agente sozialek gizartea eraldatzeko gaitasun argia dute¹⁸⁴.

Orotara, Teoria Kritikoaren aldaera neogramsciarraren ardatza mundu mailako sistema kapitalistaren egituraren analisi kritikoa da, Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak, enpresa transnazionalen eragina, eta beste

¹⁸³ SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica de las Relaciones Internacionales», in ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA, *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madrid, 168. or.

¹⁸⁴ COX, Robert (1992) «Towards a Post-hegemonic Conceptualization of World Order: Reflections on the Relevancy of Ibn Khaldun», in ROSENAU, James eta Earst Otto CZEMPIEL, *Governance without Government: Order and Change in World Politics*, Cambridge University Press, Cambridge, 138. or. Hemen aipatua: SODUPE, Kepa (2000) *teoría de las Relaciones...*, *op. cit.*, 189.-191. or.

alderdi batzuk barnean sartuta. Horrenbestez, Nazioarteko Ekonomia Politikoaren esparruan kokatuta dago batik bat. Egile nagusien artean, nabarmentzekoak dira Stephen Gill¹⁸⁵, Mark Neufeldy¹⁸⁶ eta, batez ere, Robert Cox¹⁸⁷.

Hain zuzen, aldaera hori 80ko hamarkadan agertu zen, diziplina horren barruan adaketa eragin zuten Robert Coxen bi lanekin¹⁸⁸. Izan ere, soziologia historikoa erabili zuten nazioarteko sisteman izandako aldaketa ikertzeko, hau da, munduko ordenak nola eraldatzen diren eta nola bihurtzen diren hegemoniko. Horrez gain, haien aurka borrokan ari diren eta haiek alda ditzaketan indarrak ikertzeko ere erabili zuten.

Aldakuntza-prozesu horiek azaltzeko, Coxek *egitura historiko* konzeptua proposatu zuen, hau da, une jakin batean honako hiru elementu hauen artean dagoen konbinazioa: a) baldintza materialak (baliabide naturalak, teknologia, antolatze gaitasunak, eta abar); b) ideiak (harreman sozialei, botere-harremanei, justiziari eta abarri buruzko ikuspuntuak): haietako batzuk egitura historiko partikular baten barruan diskurtso sozial komuna osa dezaketen arren, beste batzuk elkarren aurkakoak eta eztabaida-iturri izan daitezke; eta c) instituzioak, botere materialaren eta ideien emaitza direnak, aldi berean bi faktoreen garapenaren eraginez, botere-harreman jakin batzuek zilegi bihurtzeko balio dutelako, bai eta egitura hegemoniko partikular bat betikotzeko ere. Egitura historikoak elkarren arteko nolabaiteko koherentziaz antolatzen ditu faktore horiek, eta praktika sozial iraunkorrak bideratzen ditu; hau da, «egiturazko botere» forma bat da, zeinek baldintza batzuk finkatzen baititu parte-hartzaileen ekintzarako, eta ekintza horiek jarrera desberdinak izan ditzakete botere horren aurrean: onartzea, eraldatzea edo borrokatzea¹⁸⁹.

Hiru faktore horiek (baldintza materialak, ideiak eta instituzioak) era desberdinetan izaten dituzte harremanak elkarrekin testuinguru historiko bakoitzean. Horregatik, egitura historikoen metodoa erabilgarria da giza

¹⁸⁵ GILL, Stephen (2008), *Power and Resistance in the New World Order*, Palgrave MacMillan, Basingstoke (Erresuma Batua).

¹⁸⁶ NEUFELD, Mark (1995), *The Restructuring of International Relations Theory*, Cambridge University Press, Cambridge.

¹⁸⁷ Ikus, egile honen beste lanen artean: COX, Robert (arg.) (1996), *Approaches to World Order*, Cambridge University Press, Cambridge.

¹⁸⁸ Hain zuzen: COX, Robert (1981), «Social Forces, States and World Orders», *op. cit.*; eta COX, Robert (1987), *Production, Power and World Order. Social Forces in the Making of World Order*, Columbia University Press, New York, ziurrena haren obrarik landuena.

¹⁸⁹ S... José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, 168-169.

jardueraren esparru partikularra denbora eta leku bakoitzean ikertzeko. Elkarren arteko harreman horretan, faktore materialak ez dira gailentzen: ekoizpen-baliabideak erabakigarriak diren arren, egitura historikoak, oraingo mundu-ordena barne, ideiek eta instituzioek ere eraikitzen dituzte sozialki. Ondorioz, Coxek zeregin nagusia ematen die parte-hartzaile sozialen egiletzari, ekiteko eta errealitatea eraldatzeko duten gaitasunari (*agency*). Ideiei eta giza ekintzari eskainitako garrantzi horrekin, Coxek tarte bat zabaldu zuen marxismo klasikoarekiko eta determinismo ekonomiko indartsuko beste neomarxista batzuekiko.

Hegemonia kontzeptua da Coxen pentsamenduko ekarpen erabakigarrietako bat, Gramsciren kontzeptuan oinarrituta dagoena. Egitura historiko jakin batean, ordena hegemoniko baten egituraketa ez da hainbeste oinarritzen «menderatzeko indar gordinean», baizik eta «botere materialaren, munduko ordenan nagusi diren irudi kolektiboen (zenbait arau barne) eta nolabaiteko unibertsaltasun-itxura batekin ordena hori administratzen duten instituzio multzoaren batura koherente batean»¹⁹⁰. Hala, bada, neorealismoarentzat hegemonia estatuek botere ekonomikoa eta militarra biltzearen emaitza bada, Coxen ustez gaitasun materialen, instituzioen, eta nolabait egonkorak diren balioen eta ideien arteko harremanean pausatzen da, horiek guztiak «gauzen berezko ordena» gisa onartzen baititu nazioarteko gizarteak. Hiru dimentsio horien arteko bat-etortzea haietako bat edo batzuk aldatzeagatik hausteak ordena hegemoniko hori haustea dakar, eta, ondorioz, egitura-aldaketa¹⁹¹.

Era horretan, nazioarteko esparruan, «munduko hegemonia egitura sozial, egitura ekonomiko eta egitura politiko bezala deskriba daiteke», hirurak aldi berean. Hain zuzen, hegemoniak mugaz gaindiko harreman jakin batzuk ekartzen ditu, ez estatuen artekoak soilik, baizik eta hainbat indar eta klase sozialen artekoak. Azken horiek munduko ekonomia baten barruan daude egituratuta, ekoizpen modu menderatzaile bat eta mendeko beste ekoizpen modu batzuk dituen ekonomian antolatuta. Izan ere, globalizazio-prozesua klase kapitalista transnazional batek gidatzen du, ez hainbeste estatuek, horiek tresna bihurtu baitira subjektu baino gehiago. Gramscik adierazi zuen bezala, hegemonia gehiago oinarritzen da onespenean eta adostasunean, hertsaduran baino. Coxen ustetan, nazioarteko erakundeek eginkizun erabakigarria betetzen dute, hainbat mekanismo erabiliz: indarrean den ordena hegemonikoaren emaitza izateaz gain, munduko ordenaren arauak sortzen eta zilegitzen dituzte ideologikoki,

¹⁹⁰ COX, Robert (1981), «Social forces...», *op. cit.*, 139. or.

¹⁹¹ SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.* 171. or.

eta, areago, intelektualek eta zapalduetako taldeek hegemoniari egindako kritikak bereganatzen eta xurgatzen dituzte¹⁹².

Esparru teoriko horretan oinarrituta, Roberto Cox, Stephen Gill eta aldaera neogramsciarrereko beste egile batzuek munduko ordena aldatzeari eta globalizazioari buruzko hainbat gai aztertu dituzte. Honako hiru gai multzo hauek nabarmendu daitezke:

1. Globalizazioaren esparruaren barruan munduko ordena hegemonikoa edo *mundu-ordena berria* osatzea: ekonomia kapitalista mundu osora hedatu du¹⁹³, klase menderatzaile transnazional baten interesek sustatuta. Analisi horretarako, hiru dimentsio hartzen dituzte aintzat:
 - a) Faktore materialak. 70eko hamarkadatik, globalizazio neoliberalak sakon berregituratu eta integratu ditu ekoizpena, merkataritza eta finantzak mundu mailan, eta, horretarako, behar izan diren aldaketak egin ditu harreman sozialetan.
 - b) Ideiak. Dimentsio ideologikoa eta kulturala oso garrantzitsua izan da globalizazio-prozesuan. Nabarmendu behar da ekonomian arauak kentzearen eta hura liberalizatzearen aldeko ideologia neoliberalaren hedapena, eta, orobat, gizarteek eta pertsonen, hein handi batean, klase kapitalista transnazionalaren morroi diren zentro ideologikoen eta intelektual organikoek bultzatutako hainbat balio, eguneroko praktika eta elementu kultural (aurrerabide kapitalistaren mitoa, merkatuaren eta pribatuaren zeregina, logika individualistak, eta abar) onartu dituztela¹⁹⁴.
 - c) Instituzioak. Ordena neoliberal liberalizazioa eta transnazionalizazioa sustatu dituzten nazioarteko instituzio arauen esparruan gauzatu da: TKAO/GATTe lehenik eta WTO/MMEK ondoren finkatutako merkataritza-arauak, integrazio eta merkataritza askeko eskualdeko hitzarmenak, NDF/IMFk eta Munduko Bankuak herrialdeei ezarritako baldintzak, eta beste.
2. Munduko ekonomiaren esparruan, estatuaren eraldaketa historikoak, oraintsuko globalizazioan bereziki. Ikusi dugunez, aipatu

¹⁹² COX, Robert (1983), «Gramsci, Hegemony and International Relations: an Essay on Method», *Millennium: Journal of International Studies*, 12. lib., 2. zk., 172.-174. or., in SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, 172. or.

¹⁹³ Ikus, adibidez, ROBINSON, William I. (2004), *A Theory of Global Capitalism. Production, Class, and State in a Transnational World*, Johns Hopkins University Press, Baltimore.

¹⁹⁴ Alderdi hauek hemen daude aztertuta, besteak beste: GILL, Stephen (2008), *Power and Resistance in the New World Order* (2. argit.), MacMillan-Palgrave, Londres.

dugun gobernantza ekonomiko globaleko esparru neoliberalak eta gorantz doan merkatuen autonomiak gero eta gehiago gutxitu dute estatuek euren kontu ekonomikoak eta sozialak kudeatzeko duten eremua. Hala, Coxek dioen legez, «estatu neoliberal» bat agertu da, eta globalizazioak haren subiranotasuna murriztu du; baina, nolana ere, aldi berean haren tresna da, ekonomia, gizarte eta instituzio nazionalak ekonomia kapitalista globalaren eskakizunetara egokitzeko balio duelako. Azken batean, munduko ordena berriaren barruan eraldatu egin dira subiranotasuna, komunitate politikoa eta estatuaren ideiak¹⁹⁵.

3. Hegemoniaren aurkako indarren antolaketa, globalizazio kapitalistaren kontraesantatik eta gerta litezkeen krisietatik sor daitezkeenak, eta prozesu emantzipatzaileak eta munduko ordena berria susta ditzaketenak. Munduko ordenaren tentsio askotarikoen artean, hauek aztertu dira, esate baterako: estatua nazioarteko kapitalaren mende izatea, eta, horrenbestez, haren botere eta demokraziaren higadura; botere politikoa eta ekonomikoa gero eta gehiago plutokrazia transnazional batean metatzea; desberdintasun sozialak areagotzea; pertsonen zaugarritasuna eragiten duen ideologia indibidualista hedatzea; naturaren gehiegizko ustiatzea; Mendebaldeko hegemonia baliabide militarrekin defendatzea, irailaren 11ren osteko Terrorismoaren Aurkako Gerra Globala deritzonaren barruan; eta abar¹⁹⁶. Kontraesan eta haustura horiek guztiek neoliberalismoaren «krisi organikoa» dakarte, eta hegemoniaren aurkako mugimendu sozialak eta politikoak agertzea eragiten dute. Horiek justizia soziala, askatasuna, ingurumenaren kontserbazioa, eta abar lortzeko borrokatzen dute. Sarritan, tokiko mugimenduak dira, baina globalki antolatuta izan ohi dira. Hainbat ikuspegi eta proposamen dauzkate, hasi globalizazioaren aurka subiranotasun nazionala berrestetik, eta bidezkoagoa den gobernantza globala ezartzearaino. Teoria Kritikoaren iritziz, indar horiek etorkizunean munduko ordena neoliberalaldatzeko tresna dira¹⁹⁷.

¹⁹⁵ COX, Robert (1987), *Production, Power and World Order...*, *op. cit.*, 253.-265. or., in SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, 175. or.

¹⁹⁶ SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, 178. or.

¹⁹⁷ OVERBEEK, Henk eta Van APPELDORN, Bastiaan (arg.) (2012), *Neoliberalism in Crisis*, Palgrave MacMillan, Londres, 3.-12. or., in SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, 180. or.

8.3. Habermastar aldaera

Teoria Kritikoaren bigarren aldaeraren ordezkariak Frankfurteko Eskolako jarraitzaileak dira. Haren barruan, Jürgen Habermasen ekarpenak dira azpimarragarrienak: gizarte-zientzia guztietan —NHetan ere bai—, azken hamarkadetan eragin handien izan duen pentsalarietako bat da. Habermastar aldaerako egile nagusia Andrew Linklater da, Kimberly Hutchings¹⁹⁸ eta Richard Wyn Jones-ekin¹⁹⁹ batera, besteak beste.

Habermasen eta Teoria Kritikoaren aldaera horren helburu teorikoa da marxismoa haren ohiko determinismo politikotik askatzea, eta teoria kritikoaren proiektuari oinarri etikoak eta konpromiso moral unibertsala ematea. Horretarako, Ilustraziotik eta Kanten doktrina etikotik eratorritako elementu normatiboak egokitzen eta garatzen dituzte.

Habermasek NHen Teoria Kritikoari egindako ekarpen nagusiek *komunikazio-ekintzari* buruzko teorizazioa eta hori demokrazia kosmopolitaren eta giza emantzipazioaren zerbitzurako aplikatzea dituzte ardatz. Marxentzat ekoizpen-sistema da eboluzio sozialeko elementu erabakigarria; Habermasentzat, ostera, komunikazioak betetzen du eginkizun hori. Hizkuntzak eta komunikazio-ekintzak garrantzi erabakigarria dute harreman sozialei eusteko garaian, bai eta eredu sozial hobekak irudikatu eta formulatzeko ere, gizarteek askatasun-maila handiagoak eskuratu ahal izan ditzaten²⁰⁰.

Hain zuzen, Habermasen pentsamendua *komunikazio-ekintza* kontzeptuan oinarritzen da²⁰¹, hau da, elkar ulertzea eta hitzarmenak eta arauak finkatzera bideratutako arrazoizko argudiaketan oinarritzen den esparru sozialean izaten den deliberazioan: harreman sozialak finkatzeko aukera ematen du, eta, azken batean, baita komunitate politikoa sortzeko eta arautzeko ere. Hizkuntza gizaki guztiok dugun ezaugarria da, baina komunikazioak elkar ulertzea bideratu ahal izan dezan, baldintza unibertsal batzuk bete behar ditu (hala nola, ulergarria izatea eta egian oinarritzea). Hala, bada, egile honen ustez, *hizketa ideal* (*ideal speech*) eta *distortsionatu gabeko komunikazio* (*undistorted communication*) izeneko komunikazio moduen barruan, gizaki guztiek eskubide bera dute beren ikuspuntuak

¹⁹⁸ HUTCHINGS, Kimberly (1999), *International Political Theory: Rethinking Ethics in a Global Era*, Sage, Londres.

¹⁹⁹ WYN JONES, Richard (arg.) (2001), *Critical Theory and World Politics*, Lynne Rienner, Boulder (AEB).

²⁰⁰ LINKLATER, Andrew (2007), *Critical Theory and World Politics. Citizenship, Sovereignty and Humanity*, Routledge, Londres, 51., 52. or.

²⁰¹ HABERMAS, Jürgen (2010), *Teoría de la Acción Comunicativa*, Trotta, Madrid (ingelesez, 1984).

berdintasunean adierazteko, haiei eragiten dieten kontuei buruz, eta erabakiak argudiorik onenean oinarrituta hartzen dira. Beste hitz batzuekin esanda, demokrazia erradikala, parte-hartzailea eta erabakitzailea da.

Jakina, errealitatean, hizketa ideal hori oztopo eta interes sozial, politiko eta kultural askok mugatzen dute. Hala eta guztiz ere, Habermasek dioenez, gizakiek gaitasuna dute ikasteko eta guztiok parte hartzeko aukera-berdintasuna bermatuko duten harremanak sustatzeko, pertsona askori eskubideak kendu dizkieten menderatze- eta bazterketa-harremanak gaindituta²⁰². Hain zuzen, haren argudioaren arabera, demokrazia parte-hartzailea da emantzipaziorako tresnarik onena, ahalik eta parte-hartze errealik zabalena sustatuko duena eta horretarako dauden oztopoak kenduko dituena²⁰³. Haren ustez, bazterketarik eta pribilegiorik gabeko deliberazio hiritarrak jokatzeke arau berriak susta ditzake, bai eta etikan oinarritutako politika, eta, azken batean, aurrerabidea eta emantzipazioa ere gizateriarrentzat.

Dena dela, Habermasek gaineratzen du parte-hartze hori gaur egun ezin daitekeela murriztu estatu subiranoen mugetara. Globalizazioaren alderdi guztiek (estaturaz gaindiko integrazio ekonomikoa, estaturaz gaindiko arazoak, gizarte zibil global bat sortzea, kultura desberdinen arteko harremanak, eta abar) eragiten dute eskubideak eta betebeharrak estatuaren mugetatik harago ezinbestez hedatu behar izatea. Horren ondorioz, komunitate politiko postnazional bat eta *demokrazia kosmopolitana* oinarritutako gobernantza craiki behar dira, maila globalean, mundu osoan elkarrizketa irekiko prozesuei bide emango dieten instituzioekin eta arauekin, zeinetan pertsona eta komunitate guztiak berdintasunean egongo baitira²⁰⁴. Ikuspegi kosmopolita horrek, Kantenarekin uztartuta, estatu subiranoa eta haren mugak kritikatzera eramaten du, munduko politikan eragiten dituzten partikularismo eta bazterkeriako logiken ondorioz. Horien aurrean, *herritartasun unibertsalaren* diskurtsoa barnertzailea dela iruditzen zaio, funtsezkoa dela gizakion aurrerabiderako eta emantzipaziorako.

Lehen adierazi dugunez, Teoria Kritikoaren aldaera honetako egile nagusia Andrew Linkater da²⁰⁵, eta lehen aipatutako Habermasen komunika-

²⁰² LINKLATER, Andrew (2007), *Critical Theory...*, *op. cit.*, 2007, 52.-53. or.

²⁰³ HOBDEN, Stephen eta WYN JONES, Richard (2011), «Marxist theories of international relations», in BAYLIS, John, Steve SMITH eta Patricia OWENS, *The Globalization of World Politics. An Introduction to International Relations. Fifth Edition*, Oxford University Press, Oxford, 141. or.

²⁰⁴ LINKLATER, Andrew (2007), «Critical Theory», *op. cit.*, 53. or.

²⁰⁵ Beste hainbat lanen artean, hau nabarmentzen da: LINKLATER, Andrew (1990), *Men and Citizens in the Theory of International Relations*, Macmillan, Londres; eta

zioari eta kosmopolitismoari buruzko proposamenak ditu oinarri. Haren lanetan, hiru gai-ardatz jorratu ditu:

- a) Lehenengo ardatza soziologia historikoan oinarritzen da, eta estatu subiranoaren osaera eta eboluzio historikoa eta estatuen nazioarteko sistema aztertzen ditu, kapitalismoaren indar sozial eta ekonomiko transnazionalen testuinguruan. Era horretan gainditu nahi ditu segurtasunaren dimentsioan ardaztutako errealismoak eta determinismo ekonomikoak markatutako marxismoak horri buruz dauzkaten adierazpen-mugak²⁰⁶.
- b) Bigarren ardatza, funtsezkoena, filosofiko-normatiboa da. Horretan aztertzen du ez datozela bat gizaki guztion eskubideen izaera unibertsala eta estatu jakin bateko herritarrei dagozkien eskubideen izaera partikularra. Estatuak, bilakaera historiko baten emaitza soilak izanik, lotura etikoak eta eskubideak sortzen dituzte, baina soilik bertako herritarrek osatzen duten komunitate politikorako. Era horretan, *komunitate moral mugatuak* sortzen dituzte, barrukoak eta kanpokoak arteko muga zurrunik, giza askatasuna murriztu²⁰⁷ eta gizaki guztion etika eta identitate unibertsalak higatzen dituztenak. Gainera, estatua zapaltzailea delako ideia hartzen du marxismotik, klase menperatzailearen interesen adierazpena. Arrazoi horiengatik, Linklaterrek erabat auzitan jartzen du estatu subiranoa. Kanten ikuspegi unibertsalista eta Ilustrazioko proiektu emantzipatzailea berreskuratzeko xedez, mundu politikoaren errotiko aldaketaren alde dago; gizaki guztion eskubideen aitortpen unibertsalari bide emango dion aldaketa nahi du²⁰⁸.
- c) Hirugarren ardatza eraldaketako praxian kokatzen da, hau da, nazioarteko harremanak berreraikitzeke aukera praktikoak identifikatzean, ikuspegi kosmopolita eta emantzipatzailetik. Etika unibertsala eta herritartasun kosmopolita eraiki behar direla babesten du, eskubide eta betebeharrak unibertsalekin, estatuaren subiranotasunaren lege-kontzeptuari lotu gabe. Horretarako, hiru eraldaketa egin behar direla dio: printzipio politiko eta moral jakin batzuk unibertsal bihurtzea, desberdintasun materialak gutxitzea eta aniztasuna

LINKLATER, Andrew (1998), *The Transformation of Political Community*, Polity Press, Cambridge.

²⁰⁶ SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, p. 184.

²⁰⁷ LINKLATER, Andrew (1990), *Men and Citizens...*, *op. cit.*

²⁰⁸ SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, 184. or.

aitortzea²⁰⁹. Izan ere, globalizazioa, estatuz gairako arazoaren gora-aldiarekin eta iraultza teknologikoarekin, dagoeneko ari da espazio publiko globala sortzen, nazioen arteko mugak gainditzen dituzten parte-hartzaileekin. Eraldaketa horiek ateak zabaltzen dizkiete nazioarteko gizarte-forma postnazionalei; eta forma horietan estatuak beren subiranotasun zati bat utziko lukete politikaren eta arau komunaren mesedetan. Beste alde batetik, argudio horiek hainbat gaitan aplikatu dituzte Linklaterrek eta korrante bereko beste egile batzuek: Europar Batasuna herritartasun transnationaleko esperientzia gisa²¹⁰, ekintza humanitarioaren arau-esparrua, imigranteen eskubideak, eta abar.

Azken batean, Teoria Kritikoaren aldaera honetan, auzitan jartzen dira errotik subiranotasun- eta herritartasun-ideia tradizionalak. Haien ustez, «emantzipazio unibertsalak ekar lezake harreman sozial baztertzaleen orde- bez barneratzaileak diren beste batzuk jartzea»²¹¹, hau da, komunitate politikoa osatzeko forma barneratzaileagoak sortzea, demokrazia kosmopolita baten bidez, «elkarrekin lotutako komunitate guztietan —nola toki-koetan, hala globaletan— parte hartzea» pertsonen bermatuta²¹².

8.4. Bi alderdietako elementu komunak

Lehen ikusi dugunez, bi aldaerak zinez izaera kritikoa dute, nola indarrean dagoen nazioarteko ordenarekiko, hala diziplinan nagusi diren neorrealismo eta neoliberalismo joerak ere; horiek, beren estatu-zentrisismoarekin eta *arazoak konpontzeko* duten ikuspuntuarekin, gizarte bigarrena betikotzen laguntzen dutelako. Teoria Kritikoak kritika ontologiko, epistemologiko eta normatibo indartsua egiten dio diziplinari, beste korrante postpositibista batzuek egiten duten bezala, baina desberdintasun batzuk ditu horietako zenbaitekiko, batik bat postestrukturalis- moarekiko.

²⁰⁹ Horri dagokionez, ikus hau: LINKLATER, Andrew (2011), «Globalization and the Transformation of the Political Community», in BAYLIS, John, Steve SMITH, eta Patricia OWENS, *The Globalization of World Politics. An Introduction to International Relations*, Oxford University Press, Oxford, 5. argit., 528.-543. or.

²¹⁰ LINKLATER, Andrew (1996), «Citizenship and Sovereignty in the Post-Westphalian State», in *European Journal of International Relations*, 2. lib., 1. zk., 87. or.

²¹¹ DEVETAK, Richard (1995), «The Project of Modernity and International Relations Theory», *Millennium: Journal of International Studies*, 24. lib., 1. zk., 39. or.

²¹² HELD, David (1997), *La democracia y el orden global: del estado moderno al gobierno cosmopolita*, Barcelona, Paidós, 323. or.

Arlo epistemologikoan, Teoria Kritikoak oinarrizko ezaugarri hauek ditu:

- a) Egitura sozialak osatzerakoan, arreta handia jartzen du ideietan, hau da, ordena soziala eta politikoa intersubjektiboki eraikitako emaitza historikotzat jotzen dute. Dena dela, faktore materialei garrantzia ematen jarraitzen dute, batez ere, aldaera neogramsciarrak, ideiekin eta instituzioekin daukan harreman dialektikoa azpimarratuz.
- b) Ezagutza ez da objektiboa, kontingentea eta historikoa baizik, erabat txertatuta baitago bizitza sozialean eta ekonomikoan, eta indarrean dauden botere-harremanek, interesek eta balioek markatzen dute. Coxen esaldi ospetsu batek adierazten duenez, «teoria oro beti da norbaitentzat, eta zerbaitetarako»²¹³. Beraz, ikertzailearen helburua ez da ustez «objektiboa» den mundu bat deskribatzea, baizik eta kritikoki agerraraztea parte-hartzaile sozial eta ekonomikoen interesak eta praktikak, bai eta une historiko jakin batean ordena soziala iraunarazteko edo eraldatzeko ideiek zer eginkizun betetzen duten ere.
- c) Jakintzak, gainera, errealitate soziala osatzeko funtzioa du; izan ere, ideiek eta hizkuntzak arauak eta instituzioak eratzea baldintzatzen dute, bai eta parte-hartzaileen praktikak ere. Horretan oinarrituta jartzen dituzte auzitan teoria tradizionalak, batik bat (neo)errealismoa, nazioarteko sistema gatazkatsu bati buruz egiten duten analisiak hori bera gauzatzen lagundu baitu.
- d) Positibismoaren jakintza absolutu, objektibo, iraunkor eta unibertsala errefusatzen duen arren, arlo sozialean jakintza zientifikoa eraikitzeko gutxieneko oinarriak daudela uste du (postestrukturalistek ez bezala, haiek ukatu egiten baitute halakorik badenik). Jakintza kontingentean sinesten du, partziala, mugatua eta aldagarria den jakintzan, hau da, ondorengo berrinterpretazio kritikotara irekitako jakintzan. Izan ere, mundua etengabeko bilakaeran egon arren, nolana ere, azalpen erabilgarriak eskain diezazkiguke orainaldiko arazoak interpretatu ahal izateko²¹⁴. Teoria Kritikoak baditu gutxieneko oinarri horiek, hein handi batean Ilustrazioko proiektua bere egiten duelako, hots, arrazoia berdintasuneko eta justiziako balio unibertsalen defentsaren eta emantzipazioaren zerbitzura erabiltzea.

²¹³ COX, Robert (1981), «Social Forces,...», *op. cit.*, 128. or.

²¹⁴ COX, Robert (1996), «Influences and Commitments», in COX, Robert (arg.), *Ap-
proaches to World Society*, Cambridge University Press, Cambridge, 29.-30. or.

Arlo ontologikoan, Teoria Kritikoaren bereizgarria da nazioartean indarrean dagoen ordenaz, haren agenteez, egiturez (hala nola, estatuaz eta nazioarteko merkatuaz) eta araez (subiranotasunaz, jarraibide komertzialez, eta abarrez) egiten duen azterketa kritikoa. Hala, estatuen sistemak eta sistema kapitalistak indarkeria, desberdintasuna eta zapalkuntza eragiten dituzte. Onartzen du nazioarteko ordena ez dela aldaezina, prozesu historiko jakin baten emaitza baizik. Horregatik, haren jatorria, eboluzio-prozesua eta ezaugarriak aztertzea hartzen du ardatz, hau da, zerbitzatzen dituen interesak, eta botere-harremanak desberdintasunean eta menderakuntzan oinarrituta daudenak. Dena dela, nazioarteko sistemaren izaera historiko eta kontingente horri esker alda daiteke, barne-kontraesanen eta une jakin bakoitzean dauden indar sozialen korrelazioaren ondorioz²¹⁵.

Arlo normatiboan, Teoria Kritikoaren bi aldaerek konpromiso etiko eta politiko argia dute gizakiaren emantzipazioaren alde. Gizakia menderakuntzaren eta bazterketaren eragile orotatik askatze gisa ulertzen dute konpromiso hori (pobrezia, zapalkuntza politikoa, bazterketa, hezkuntza gabezia, gerra, ziurtasunik eza, eta abar). Hau da, emantzipazioak bizi-baldintza duinak dakartza, nola bizi nahi den hautatzeko aukerekin. Abiapuntu bezala, eraldaketa egin daitekeela sinesten dute; izan ere, nazioarteko ordena aldatzeko eragile sozialek duten ahalmena azpimarratzen dute, unean uneko baldintzetan eta indar-harremanetan oinarrituta, nahiz eta aintzat hartu egiturek ordena hori eratzeko duten garrantzia. Teorizazioak eraldaketa soziala gauzatzeko balio behar duenez, nazioarteko sistemaren izaera zapaltzailea eta hari eusten dioten teoria tradizionalak duten eginkizuna azaleratu behar ditu, eta eraldaketa piztuko duten alternatibak iradoki.

Horren harira, Teoria Kritikoa praxi politikoarekin konprometituta dago: jakintza praktikoaren bila dabil, zapalduen eta baztertuen aldeko «eraldaketa sozial eta politikoan interes politikoa eta etikoa duen» jakintzaren bila²¹⁶. Horren harira, teoriaren eta praxiaren arteko harremanei buruz Gramscik zituen ideiak berresten ditu: intelektualek engaiatu behar dute, aldakuntza sozialaren eta ahotsik eta botererik ez duten sektoreen emantzipazioaren aldeko mugimendu sozialen borrokak bultzatzeko²¹⁷. Era berean, Horkheimer eta Frankfurteko Eskolako beste egile batzuen ideien arabera, azterketa politikoaren helburuetako batek izan behar du

²¹⁵ SANAHUJA, José Antonio (2015), «Los desafíos de la Teoría Crítica...», *op. cit.*, 165. or.

²¹⁶ DEVETAK, Richard (1996), «Critical Theory», in BURCHILL, S. *et al.*, *Theories of International Relations*, St. Martin's Press, New York (2. argit.), 151. or.

²¹⁷ WYN JONES, Richard (1999), *Security, Strategy and Critical Theory*, Lynner, Boulder (AEB), 161. or.

sufritzen dutenei ahotsa ematea eta elkartasun unibertsala erakustea, miseria ezabatu eta bizitza hobetu dadin.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Teoria Kritikoaren analisisietako erreferentea ez direla estatuak, baizik eta gizateria osoa, eta, bereziki, boterarik gabeko sektoreak, «ahotsik gabe, ordezkari itza murrizta eta defentsarik ez duten» pertsonak²¹⁸.

Askatzeko nahi hori lotuta dago Ilustrazioko proiektuarekiko atxikimendu kritikoarekin, zeina, izandako porrotak izanik eta osorik gauzatu ez bada ere, askatzeko bide baliagarria baita oraindik, baldin eta modu egokian eraberritzen bada²¹⁹. Hala, Teoria Kritikoak positibismoaren estutasunak baztertzen ditu, baina ez du arbuiatzen Modernitatea, ez eta arrazionalismoa ere. Horrek eta duen konpromiso politiko eraldatzaileak bereizten dute korrante postestrukturalistatik.

Bestetik, asmo emantzipatzaile horrekin, Teoria Kritikoak ekarpenak egin dizkio NHeetako gai nagusi batzuk —hala nola, segurtasunaren gaia— eztabaidatzeari. Korrante horren esparruan, Galesko Eskola izenekoak auzitan jartzen du diziplinako korrante nagusiak segurtasunaz duen ikuspegi klasikoa, estatuaren segurtasun militar gisa ulertzen baitu. Horren ordez, haren definizioaren arabera, segurtasuna pertsonentzat mehatxurik ez izatea da (ekonomikoa, politikoa, soziala, eta abar). Hala, segurtasuna emantzipazioaren bidez lortzen da, eta ez botere militarra metatuz. Mehatxuen aurrean, pertsonak zenbat eta seguruago izan, orduan eta emantzipatuago egongo dira, eta alderantziz²²⁰.

8.5. Ekarpenak eta kritikak

Teoria Kritikoak eztabaida eta ekarpen garrantzitsuak bideratu ditu diziplinaren barruan, arlo epistemologiko, ontologiko eta normatiboan.

Horrela, auzitan jarri ditu diziplinaren joera nagusien oinarri batzuk, hala nola, estatu zentrismoa, subiranotasuna eta herritartasun eta identitate nazionalaren ideiak, eskusibistatza eta giza askatasunerako mugatza jotzen baititu. Beste hainbestean, bere sustraletako asko sartuta dauden marxismoa berrinterpretatzen lagundu du, horren ohiko determinismo ekonomizista gainditzen: ekoizpen-eredua ez da gizartearen eta eboluzio historikoaren faktore erabakigarri bakarra. Hain zuzen, nazioarteko egitu-

²¹⁸ *Ibidem*, 159. or.

²¹⁹ DEVETAK, Richard (1995), «The Project of Modernity», *op. cit.*, 27.-51. or.

²²⁰ BOOTH, Ken (arg.) (2005), *Critical Security Studies and World Politics*, Lynne Rienner, Boulder (AEB).

rak aldakorrak dira, eta, une oro, marxismoak aintzat hartu gabeko beste bi dimentsiorekin elkarrekintzan dabil dimentsio ekonomikoa: ideiekin eta instituzioekin.

Berrikuntza teoriko horiek erabiltzen ditu estatuen sistemaren eta globalizazio neoliberalaren nazioarteko ordena errotik kritikatzeko, zerbitzuetan dituen interesak eta horiek eragiten dituzten zapalkuntza eta bazterketa azaleratzeko. Gainera, joera horren ezaugarrietako bat da haren izaera guztiz normatiboa, hots, eraldaketa sozial eta politikoaren aldeko analisiak eta proposamenak egiteko borondate argia. Hain zuzen, estatu subiranoen sistema gaudituko duten komunitate politikoen forma berriak eraikitzearen alde dago, giza eskubideen erabilera unibertsalean oinarrituta, gizaki guztiok osatutako herritartasun kosmopolita bat sortzeko.

Gainerako korrante postpositibistek ere bat egiten dute Teoria Kritikoaren ezaugarrietako batzuekin, batez ere nazioarteko sistema eta diziplinako postulatu nagusiak auzitan jartzearekin. Hala ere, beste ezaugarri batzuk korrante horren berariazko ezaugarriak dira, eta beste ikuspegi postpositibistetatik bereizten eta urruntzen dute, batik bat postestrukturalistotik, funtsezko bi desberdintasun baititu harekin. Lehenik, azkeneko korrante hori erabat kritikoa izan arren, gehienetan ez du berariaz adierazitako konpromiso politikorik, eta ez du mundua aldatzeko proposamen zehatzik egiten; Teoria Kritikoak, aldiz, bai. Bigarrenik, postestrukturalismoak Modernitatea eta arrazionaltasuna arbuiatzen ditu; eta Teoria Kritikoak, berriz, arrazoizko oinarrien gainean eraiki nahi du jakintza.

Beste alde batetik, Teoria Kritikoak formulatutako helburu nagusia eztabaidan jarri da: *emantzipazioa*. Zenbaitek azpimarratu du lausoegia dela, ez baitu zehazten gizarte emantzipatua nolakoa izango litzatekeen, ez eta hura lortzeko zer urrats egin behar den ere. Azkenik, egile postestrukturalista eta postkolonial batzuek ohartarazi dutenez, jomuga unibertsal gisa aurkezten bada ere, Europako Ilustraziotik eratorritako mundu mende-baldarraren ikuspegian oinarritzen da. Hala, litekeena da mende-baldarrak ez diren gizarteetara ongi ez egokitzea, eta haien gaineko inposizio bihurtzea²²¹.

²²¹ BUZAN, Barry eta Lene HANSEN (2009), *The Evolution of International Studies*, Cambridge University Press, Cambridge (Erresuma Batua), 207.-208. or.